

3. AUDITORIA PROZESUA

ZEREGINAK /EBAZPENAK

3.1. INBENTARIOA

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Ibilgetu materialaren inbentarioa nola egiten den aztertu eta saldoa egiaztatu 2019/01/01n.

Fakultateko administratzaileak ondoko datuak eman ditu:

Eskuratze prezioa	Amortizazio metatua	Kontabilitate balioa
446.507,10	-351.426,36	95.080,74

*Eraikinaren balioa ez da barneratzen.

Lehenik eta behin Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Ibilgetu Materialaren gainean dagoen Barne-kontrol sistema aztertuko da.

Barne-kontrola ebaluatzen diren Galdetegiak	Bai	Ez	Ez dago	Oharra
Kontaketa fisikoak burutzen dira sistematikoki	X			Urtean behin burutzen da
Zereginen banaketa: <ul style="list-style-type: none"> Inbentarioaren arduraduna badago Kontaketa egiten duena kontabilizatzen duen pertsonaren desberdina da Ibilgetuak zaindu eta mugitzen dituen kontatzen dituen pertsonaren desberdina da Ordainketak baimendu eta erregistratzen dituen pertsona desberdinak dira 	X X X X			Zereginen banaketa dago eta pertsona bakoitzaren ardurak zehaztuta daude. Administraria, administrazio laguntzailea, saileko idazkaria, irakaslea, teknikaria
Erregistroak: <ul style="list-style-type: none"> Altak baimenduta eta erregistratuta daude Bajak informatuta eta erregistratuta daude Inbentario fitxak badaude eta eguneratuta daude Inbentario etiketak jarrita daude 	X X	X X		Inbentarioaren eguneraketan arazo informatikoak daude. Gutxienez 8 hilabeteko atzerapena dago.
Ibilgetuen babesaren egokia da: <ul style="list-style-type: none"> Fisikoa Asegurua 	X X			

Barne-kontrola ebaluatzeko Galdetegia	Bai	Ez	Ez dagokio	Oharra
Urteko inbertsioen aurrekontua badago	X			Diru laguntza berezi bat eskatu behar da
Amortizazio politika egokia da:				Ordenagailuen bizitza erabilgarria 4 urtekoa da.
• Eskuratze prezioa	X			
• Bizitza erabilgarria	X			
• Kontabilitate balioa	X			

Galdetegiaren erantzunekin Barne-kontrol sistemaren kalitatea ebaluatu da. Kasu honetan Barne-kontrola egokia eta sendoa dela ondorioztatuko dugu, nahiz eta eguneraketa arazoa larria izan.

Ondoren, auditoria probak aplikatuko dira. Lanaren exekuzioan erabiliko diren metodoak: Inbentario fisikoa:

Ibilgetu materialean ordenagailuak (informazioa prozesatzeko ekipamendua) aztertuko ditugu.

- Langileek egindako inbentarioa **behatu**. Ezinezkoa zaigu, martxoan egiten baita eta abenduan gaude.
- **Ikuskatu**: inbentario zerrenda eta fisikoa alderatu:
 - Unitateak. Lagin bat aukeratu da, 2.8 ordenagailu gela. Bertan zenbatu diren ordenagailua kopurua bat dator administratzaileak emandako zerrendarekin.
 - Egoera: Lanaren emaitzak erakutsi du badaude bi ordenagailu baztertuta:
 - A ordenagailua: konpondu daiteke. Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzuari eman zaio abisua eta teknikaria jakitun dago.
 - B ordenagailua: bajaran eman behar da. Eskuratze balioa: 1.300€; Amortizazio metatuta: 1.100€. Kontabilitate Balioa: 200€
- **Kalkuluak**: ondo daude.
- ...

Ondorioa:

	Administratzaileak	Auditoreak	Diferentzia
Eskuratze balioa	446.507,10	445.207,10	-1.300
Amortizazio metatua	-351.426,36	-350.326,36	1.100
Kontabilitate balioa	95.080,74	94.880,74	-200